

**ANOETAKO HERRIKO FRONTOIAREN FUNTZIONAMENDURAKO ETA
ALDAGELEN ERABILERARAKO ARAUTEGIA**

INDARREAN 2004KO MARTXOAREN 23TIK

(2003KO ABENDUAREN 23KO UDALBATZARREAN ONARTUA)

(G.A.O. 34 ZKIA-2004.02.20)

ANOETAKO HERRIKO FRONTOIAREN FUNTZIONAMENDURAKO ETA ALDAGELEN ERABILERRAKO ARAUTEGIA

Arautegi honen helburua, herriko frontoiaren instalazioen eta aldagelen funtzionamendua eta erabilpena arautzea izango da.

I. Herriko Frontoiaren Instalakuntzen Erabilpena eta Funtzionamendua

1.- Herriko frontoia, goizeko 8:30-etatik gaueko 11-etara erabili ahal izango da aurrez baimenduriko ekitaldi publiko edo txapelketaren bat dagoenean ezik.

2.- Esku-pilota eta goma-pilota aktibitateak gainontzeko kirol aktibitateen gain lehentasuna izango dute.

3.- Pilotaren aktibitate desberdinak gehiago praktika daitezzen, 16 urte beherakoek lehentasuna izango dute, honako ordutegi hauetan:

- a) 16:30-tik 18:30-ra, urte guztian zehar.
- b) 9:30-ti 12-etara, eskolako oporretan, larunbata eta jai egunetan ezik.

4.- Herriko frontoiaren berezitasunak kontutan harturik, debekatua dago honako modalitatetetan aritzea:

- Erremontea
- Puntarako xistera (saski)
- Pala motza
- Pala luzea

5.- Bai zaletu bai federatu mailan modalitate desberdinetako txapelketaren bat antolatuz gero partikularren aldetik beraientzat soilik erabili ahal izateko, aldeztu aurretik Alkatearen erabakiz baimendua egon beharko du.

6.- Erreserba egin ahal izango dute, behar bezala eskatzen duten Anoetako herritar edo erakunde guztiek.

Erreserba orduak, ordubete asteko pertsona bakoitzeko izango da, salbu pilota eskolentzat, hauek 4 ordu asteko izango dutelarik.

Erreserbak aurrez udal-bulegoan ordainduko dira, dagokion ordenantza fiskalean ezarrita tasen arabera.

7.- Alkate Jaunari gaitasuna ematen zaio, arautegi honen 3. eta 6. puntuetan azaltzen diren ordutegiak aldatu ahal izateko, edozein gora-behera gertatuz gero. Era berean, gaitasuna izango du ekintza kultural edo kirol

erakoa ez den beste aktibitatearen baterako frontoia erabiltzeko baimena emateko.

8.- Erabilera ez egoki edo arduragabekeriak jokatu izanagatik sortutako galeren erantzule berauen egilea izango da eta konpontze gastuak edo eroste gastuak bere gain hartu beharko ditu.

II. Herriko Frontoiko Aldagelen Erabilpenerako Arautegia

1.- Aldagelak erabiltzeko eskubidea kirol instalakuntzak erabiltzen ari direnek edota beste edozein kirolean edo ekintza kulturean ari direnek izango dute soilik.

2.- Aldagelen erabilpena berauen erabilera egokia eskatzen du.

3.-Udaletxea arduratuko da instalakuntzen eta komunetako oinarrizko mantenuaz: garbiketaz, papera eta xaboiaren birjartzeaz eta abar. Bestetik, erabiltzaile oro behartua dago arduradunei funtzionamenduaren gabezien, akats edo ez egokitasunen berri ematera.

4.- Erabilera ez egoki edo arduragabekeriak jokatu izanagatik sortutako galeren erantzule berauen egilea izango da eta konpontze gastuak edo eroste gastuak bere gain hartu beharko ditu.

5.- Erabiltzaileak behartuak daude zuzendaritzak zehaztutako erabilera oharrak betetzera:

- a. Debekatua dago animaliak sartzea.
- b. Debekatua dago komunetan jatea, erretzea eta bertako ura ez den beste edozer edatea.
- c. Debekatuta egongo da zuzendaritzak zehatz dezaken beste edozein ekintza burutzea.

6.- Udaletxeak ez du erantzukizunik izango aldageletan gerta daitezkeen galera edo lapurretetan.

Arautegi hau, Udal-Batzak 2.004ko ekainaren 8an onatutako bileran onetsia izan zen.

Anoeta, 2006ko abenduaren 31.

O.E Alkatea,-

Idazkari-Kontuhartzailea,-